


BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



DENDEN ITXIERA

HOTZIKARAK
TOKIKO MERKATARITZAN



Endañeta Zumaia

ENDANĒTAK ez du saldu bakarrik egiten, arreta ere ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TiEN21



ferreteria Galdona S.A.

burdindegia

Industriako era guztietako **material, tresna, pieza, eta osagarriak.**

JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 27



BALEIKE 317

2022-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Jabi Gonzalez Toston
Arritu Bidasoro
- 6 **Izpiak eta hizkiak**
Arnaitz Rubio Aprea
Tomas Rubio Vera
- 8 **Hainbat aburu** Joseba Egaña
Bizi ditugun eguraldi aldaketa bortitzak
- 9 **Errematea** Iosu Alberdi
Distopia
- 10 **Elkarrizketa** Juan Luis Romatet
Patxi Ezkurra: "Oinarrikoa zaintzea oso garrantzitsua da, bestela dena pikutara joango da"
- 15 **Erreportajea** Maria Maya Manterola
Gertutasuna Internetez ez da saltzen
- 20 **Erretratua** Onintza Lete Arrieta
Ispilura begiratzea bezalaxe
- 25 **Heziketa** Mireia Centeno
Haserrealdiaren kutxa
- 26 **Plazan bazan**
Gonzalo Torre
Itsas bitxien aterpeak
- 29 **Zientzia eta ingurumena**
Juan Luis Romatet
Antimilitarismoaren aldarriak Zumaia hartu zueneko
- 35 **Argazki artxiboan barrena**
Juan Luis Romatet
Kulturarekin sareak ehuntzen
- 41 **Kultura** Juan Luis Romatet
Kulturarekin sareak ehuntzen
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Antton Peñalba
Iraganeko haritik datorkigu etorkizuna
- 45 **Nire txanda**
Eneko Dorronsoro Senosiain
Ni ez naiz zumaiaarra
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Nekea

BALEIKE

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea K.O.P.F.I.K.
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue
Sara Iburguren

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru
publizitatea@baleike.eus

Administrazio

arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 800 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Arritxu Bidasoro

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Sanjuaniturriaren inguruan hazia eta hezia da Arritxu Bidasoro (Zumaia, 1949). Harategi kalean jaio zen eta kale berean bizi da orain ere. Horregatik, beti izan du lotura berezia iturriarekin. Izan ere, bera da 2016tik bertan den Maritxuren estatua janzten duena.

Zergatik hasi zinen Maritxu janzten?

Inauteri batzuetan pasatu zitzaidan burutik lehen aldiz. Guztiok mozorrotzen bagara, Maritxu ere zergatik ez? Galdetu nion neure buruari, baina iruditu zitzaidan ezin nuela halako lizentziarik hartu eta gogoia eman zidalako mozorrotu; estatua herritar guztiona da eta norbait haserretu zitekeen. Horregatik, Udalarai baimena eskatzea erabaki nuen santelmoetan janzteko. Orduko alkatearekin hitz egin eta erreparorik gabe, alkandora urdina eta zapia lasai jartzeko esan zidan.

2016ko santelmo haietan lehen aldiz dotoretu zenuenetik, zenbat jantzi egin dizkiozu?

Asko. Hasi nintzenetik urtero egin diot mozorro berria inauterietan, iazkoetan salbu. Sevillarrarena du, mexikarrarena... Etxeko trapuekin egiten ditut, eta urte batzuetan bi mozorro ere jarri izan dizkiot musika eskolak kalejirarako hautatutako gaiarekin bat egiteko. Iaz, pandemia zela eta, ez zen inauteririk izan eta ez nuen mozorrotu, ezta 2020ko santelmoetan ere, itxialdi zorrotzean ginelako, baina aurrekoetan leheneratu nuen ohitura Maritxuri maskara jarrita, eta aurtengo inauterietan ere badut berriro mozorrotzeko asmoa. Dena den, urtean zehar egun gehiagotan ere apaintzen dut, Euskal Jaietan, Emakumearen Egunean eta Gabonetan, besteak beste. Egutegia osatu nuen data berezietan Maritxu janzteaz ez ahazteko.

Pena eman dizu pandemiagatik Maritxu ez mozorrotzeak?

Pena festarik ez egoteak eman dit, ez Maritxu mozorrotu gabe geratzeak. Guztiontzat egoera festarik gabekoa zenez, Maritxurentzat ere bai.

Lan handia hartzen duzu janzteko?

Aspaldi hartu nion tamaina. Neurriak ere behin hartuta nahikoa, nire berberak ditu, gainera. Beraz, hari jarri aurretik nik probatzen dut. Guztia ondo dagoela ziurtatu eta Maritxuri janzteko orduan, alboetatik lotzen dut soinekoa belkroz edo botoiekin. Goizean goiz janzten dut eta gauean kendu. Egunero festak egun bat baino gehiago irauten badu. Hala ere, behin egun argiz kendu zioten santelmoetako marinela alkandora estatuari. Pena handia hartu nuen eta Facebook bitartez salatu nuen gertatutakoa. Kexa plazaratu eta bi egunera etxeko atarian utzi zidaten.

Santelmoetako jantzia gordeta duzu. Gainerakoak ere bai edo beste erabilpenik ematen diezu gero?

Soineko guztiak ditut bilduta. Festak amaitutakoan garbitu eta gorde egiten ditut arropa guztiak. Maleta bat Maritxuren jantziekin beteta daukat ganbaran.

Herritarren harrera nolakoa izan da?

Ona. Jendeak eskertu egin dit. Maritxuri mozorro ederrak prestatzen dizkiodala esan didate askok eta nik ere gustura hartzen ditut halako mezuak. Halaber, beti dago saltsa guztietan nagoela esaten duenik ere, baina hori ere ez dut gaizki hartzen.

Erretiroa hartutakoan ekin zenion ekimen honi.

Luzaroan jarraitzeko asmoa duzu?

Gustura egiten dut eta ahal dudan bitartean jarraituko dut. Gero, nire senitartekoren batek erreleboa ematea gustatuko litzaidake, baina ez zait iruditzen alabak eta bilobak borondate handirik dutenik. Dena den, ondo hartuko nuke nire senitartekoa ez den besteren batek hartzea Maritxu apaintzeko ardura. ■■■



Tomas Rubio Vera

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Villanueva del Arzobispo herrian jaio nintzen, Jaengo probintzian, 1958. urtean. Andaluzia utzi eta 1968an etorri ginen Zumaiara, lan egitera eta bizitza hobe baten bila. Jaenen nekazaritza besterik ez zegoen; hemen industria eta lan gehiago. Aitaren familiarteko batzuk hemen zeuden ordurako, eta horrela etorri ginen Zumaiara.

Egurkoko etxeetan egon ginen lehen urteetan, alokairuan. Bost anai-arreba ginen, eta lehen urte haiek gogorak izan ziren. Giro umil batean bizi ginen, eta ahal zuenak lan egiten zuen. Urte batzuk pasatu ziren arte gogorra izan zen bizitza gurean. Eskola Nazionaletara joaten nintzen, eta *Cara al sol* abestera behartzen gintuzten; ez bazenuen abesten, agian, zaplazteko batzuk jasoko zenituen. Katekesia egitera ere behartzen gintuzten, eta hara ere isil-isilik joaten ginen. Ikasle ona nintzen; ikasturte amaieran ikasle onenentzako sariak ematen zituzten, eta onenen artean egoten nintzen. Etxean ez zegoen ikasten jarraitzeko aukerarik, eta 14 urterekin hasi nintzen lanean. Antxoatan egon nintzen Nardinen urte erdiz edo, eta handik gutxira Torreagan hasi nintzen lanean –aitak han egiten zuen lan–. Berez, ofiziorik ez nuen ikasi, eta gora egin badut, merituengatik izan da.

21 urtez egon nintzen fundizioan lanean, baina industri birmoldaketa bat izan zen eta kaleratu egin ninduten. 35 urte izango nituen orduan. Beti egin nahi izan dut lana, familia eta zu zeu mantentzeko. Bi denboraldi egin nituen hondartzak garbitzen, eta tartean, bederatzi hilabetez, untxien granja batean egin nuen lan, Azkoitian. Gero Itziarren lana aurkitu nuen,

galdaragintzan. Hamar bat urte egin nituen han. Peoia nintzen, eta denetik egin nuen. Pinturan hasi nintzen jarraian, metalezko estrukturak pintatzen aritzen nintzen. Fabrika berean lan egiten zuen anaia lan istripu batean hil zen, eta une oso gogorak izan ziren. Istripua 2001ean izan zen, eta 2005era arte iraungo nuen enpresa horrekin; ezin nuen gehiago jarraitu. Zumaian lan egiteko aukera atera zitzaidan, Astilleros Valenciagan, eta ontzioletan egin ditudan hamalau urtetan peoi espezialista lanetan aritu naiz.

Lanorduetatik kanpo, etxean egotea gustatzen zitzaidan, semeekin, emaztearekin.

Kuadrillarekin egotea ere gustuko nuen, baita musean jokatzea ere. Zumaiako Futbol Taldeko zuzendaritzan hiru urtez egon nintzen, oso gustura. Plaieroetan ere jokaten nuen, txikia nintzenetik jokatu izan dut. Epaile lanak ere egin nituen hondartzan; araudiaren inguruan herriko gazteren batekin ika-mikaren bat izan dut, baina ondo bukatu genuen.

Sanpedroetako danborradan atera izan naiz 22-23 urtez. Gozamina da; oso ondo pasatu dut, eta danborradaren batean hunkitu ere egin naiz. Behin baino gehiagotan gonbidatu gaituzte herritik kanpo jotzera, Lourdesen bitan, eta Pedrazan (Segovia) behin. Egun ahaztezinak izan ziren. Pandemia dela eta bi urte daramatzagu jo gabe, eta espero dugu aurten kalera aterako garela.

Erretiroa hartu dut orain; aukera hori izan nuen, 47 urte kotizatuta nituen, eta uste dut merezita hartu dudala erretiroa. Lasai egongo naiz; bidaia batzuk egingo ditut, bilobekin, semeekin, emaztearekin egongo naiz, eta gauza gutxi gehiago. Egunez egun bizitzak ematen duenaz gozatzen egongo naiz. ■■■■



IRITZIA

HAINBAT ABURU



JOSEBA EGAÑA

Bizi ditugun eguraldi aldaketa bortitzak

Euskal Herrian badaki eguraldiak koska handiak sartzen egun batetik bestera. Bizi garen tokian ohikoa da, gauden latitudean eta itsasotik gertu eta atmosferako zirkulazio orokorra kontuan hartuta.

Antizikloien eta borrasken kokapenarengatik, egoera oso ezberdinak izaten ditugu. Antizikloia Atlantikoan geratzen denean denbora luzez, ipar-mendebaldeko haizea eragiten du eta hortik fronteak iristen zaizkigu etengabe, eta horrela giro hezea eta euritsua izan dezakegu egun askotan. Beste batzuetan, antizikloia gainean ipini eta egoera lasaia, egonkorra eta eguzkitsua izan dezakegu. Hego haizea ere ohikoa da, bereziki udazkenean eta negu partean, borraskak Atlantikotik hurbiltzen

direnean baina aurrera egin ezinik geratzen direnean, Europan kokatzen den antizikloi egonkorrari esker. Horrela, jarraian egun askotan zehar, hego haizea izan dezakegu, batzuetan nahiko zakar, eta nahiz eta neguan egon: temperatura igo, eta guri aire masa beroagoa eta lehorragoa iristen zaigu.

Egoera batetik bestera berehala pasa gaitezke, eta gertatzen denean, askotan fronte baten iritsierarekin, bat-bateko aldaketa nabarmenak ekartzen ditu. Aldaketa horiek guztiek egiten dute polita meteorologia.

Askotan esan ohi dugu eguraldia zoro dabilela, eta horixe iruditzen zaigu aldaketa bortitzak izaten direnean ere. Adibidez, lehengo urteko azaroaren azken hamar

egunetan eta abenduaren lehen hamar egunetan, euri asko egin zuen eta litro asko pilatu ziren, eta horrek uholdeak eragin zituen hainbat puntutan. Gero, berriz, antizikloia gainera etorri eta euririk gabe geratu ginen abenduaren 11tik aurrera. Gabonetan, berriz, hego haizea, eta nahiz eta neguan egon, temperaturak gora egiten du erraz. Temperatura maximoa egun askotan 20° C-tik gorakoa izan zen kostaldean. Hego haizea berogailua martxan jartzea bezala da guretzat, baina egia da, baita ere, traidorea ere badela: boladaka, indartsu dabilenean, berokiak ez digu enbarazu egiten. Dena den, Gabonetan momentu askotan haizea nahiko suabe ibili zen eta bero sentazioa izan zen nagusi. Adibidez, Urtezahar gauean temperatura

HAUXE BAI JENEROA!



20° C inguruan egon zen gau osoan kostaldean, hau da, gau tropikala negu bete-betean. Hego haizea desagertzen denean, berriz, neguan hotza bueltan etortzen da, berogailua itzaliko bagenu bezalaxe. Urtarrilaren 4an aldaketa izan genuen, hego haize eta eguraldi epel hori atzean laga, eta frontearekin batera temperatura 10° C jaitsi zen.

Esan dudan bezala, aldaketa handiak gertatzen dira Euskal Herrian eguraldiari dagokionez, eta hori normala da. Gabonetan, eta orokorrean negu partean, hego haize egunak ugariak izaten dira, eta horrelakotan ez da arraroa 20° C-ko muga hori gainditzea. Esaterako, 2019ko abenduaren 24an Gabon Koruan kantuan ibili ginen bero sentsazioarekin. Hego haize egun bat izan zen,

hego haize suabea, maximoa 21° C-koa. Memoriak askotan huts egiten digu, behintzat eguraldi kontuetan, eta uste dugu inoiz ez dela gertatu horrelakorik, baina datuak aztertzen ipintzen bagara, orduan aurkitzen ditugu egoera horren antzeko beste hainbeste.

Baina egia da azken urteetan, egoera bitxiak eta bereziak gertatzen ari direla eta datuetara jotzen badugu, markak hausten doazela. Garbi dago aldaketa klimatikoaren ondorioz, muturreko egoera bereziak areagotzen ari direla eta bereziki temperatura goraka doala. Mundu mailan datuak daudenetik, azken zazpi urteak izan dira beroenak, bada zerbait. Beraz, gure planeta zaintzea komeni zaigu, daukagun planeta bakarra baita. ■■■

ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Distopia

Etorkizuneko gizartearen nondik norakoak imajinatzen jarri nau Layla Martinezen *Utopía no es una isla* (Utopia ez da uharte bat) lanak. Ez naiz bereziki zientzia fikziozko lanen jarraitzailea, baina pelikulek eta telebilek markatu dute burura etorri zaidan mundua. Botoia sakatu eta ontzi batek jasoko eta eramango zaitu behar duzun lekura. Bien bitartean, aprobetxatu bidaia dei bat egiteko holograma bidez.

Baina, aurrerapen teknologiko eta informatikoetatik haratago, zer nolako gizartea irudika dezakegu? Egungo kultur eskaintzaren gehiengoak aurkeztutakoari jaramon egiten badiogu, nekez izango da atsegina. Purga batetik ihes egiteko lapurtu beharko duzu ontzia, eta deirik ere ezin egin. Garestiegia da telefonoa kargatzea. Hori, ez begiratu gora ez bada lehenago meteorito bat jausten. Bi kasuetan, zuk, eliteen parte ez zaren horrek, zail izango duzu ihes egitea.

Distopia horiek badira egungo gizartearen isla, eta, batzuetan, badira kritika. Martinezen esanetan, ordea, gero eta etorkizun okerragoak imajinatzeak utopietan pentsatzeko gaitasuna ere lapurtu digu. Eta horrekin batera, gogoia itzali etorkizun hobe baten bila oraina aldatzeko. ■■■



"Oinarrikoa zaintzea oso garrantzitsua da, bestela dena pikutara joango da"

PATXI EZKURRA MEDIKUA

30 urtez izan da Patxi Ezkurra (Elgoibar, 1955) Zumaiaiko Osasun Zentroko zuzendari. Iazko abenduan hartu zuen erretiroa, eta elkarriketa honetan bere hastapenez, Zumaian izandako esperientziak eta pandemiak aritu da hizketan, besteak beste.

Testua eta argazkiak: **Juan Luis Romatet**.

Kontsulta orduen ondoren, eta bilera sorta bat amaitu eta gero, izan zuen *Baleikek* Ezkurrarekin hitz egiteko aukera. Elkarriketa hau 2021eko azaroaren amaieran egin zen, Omicron aldagaia oraindik ezagutzen ez eta seigarren olatua espero ere ez zenean.

Nola sartu zinen medikuntzan? Txikitatik mediku izateko gogo al zenuen?

Bada, egia esan, ez zen izan horrela. Txikitan, Elgoibarren, bi irtenbide zeuden: normalean, denok Armeria Eskolara joaten ginen, eta han doikuntza, tornua, fresatzeko makina ikasten genuen; bestela, familiaren arabera, unibertsitatera joan zintezkeen. Nik ez nuen unibertsitatera joateko aukerarik izan. Orduan, Unibertsitate Laboralera joan nintzen eta ofizialtza kimikoa egin nuen. Haren amaieran prestatze kurtso bat egiten zenuen, eta bikainetik gorako nota lortzen bazenuen, beka bat eskura zenezakeen. Orientazio bat jasotzen zenuen, eta hor aukeratu behar zenuen zer ikasi nahi zenuen. Nik filosofia egin nahi nuen, baina aitak esan zidan ea zer egingo nuen ikasketa horiekin. Bera

masajista zen, eta Medikuntza egitea erabaki nuen. Horrela hasi zen kontua. Zaragozan egin nituen ikasketak, eta urtez urte aprobaten bazenuen, beka berritzen zizuten; horri esker atera nuen karrera.

Familia mediku aritu zara Zumaian. Ez zenuen izan beste espezialitatearen bat ikasteko gogorik?

Hor ere zalantzak izan nituen. Medikuntza ikasketak 1981ean bukatu nituen, eta gero BAMEa [Barneko Medikuko Egoiliarra; MIR gaztelaniaz] egiteko aukera hasi zen. Aurretik ez zegoen halakorik. Ordura arte, herrietako familia medikuek Medikuntza eginda zuten, baina BAMErik ez. BAMEa prestatzen aritu nintzen, eta kostatu zitzaidan: agian 20.000 pertsona aurkeztu ziren Estatu guztitik, eta 1.200 plaza besterik ez zeuden. Laugarrenean atera nuen; suplizioa hutsa izan zen. Bitartean, ordezkapenak egin nituen Elgoibarren. Behin BAMEa atera nuenean, familia medikuntzak harrera ona zuen; beste espezialitate batzuek ez zuten halako harrerarik, laga egiten ziren, edo ez zituen inork hartzen. BAMEa egin eta familia medikuntza aukeratu genuen lehen promozioa izan ginen. Gu ere espezialistak gara. Formakuntza lau urtekoa da, ospitaleetan lan



egiten dugu, eta espezialitate askotan txandakatzen ere ibiltzen gara. Azken urtea tutore batekin egiten dugu lan, jakiteko benetan zer den lan hau.

BAMEa amaitu ondoren, non aritu zinen?

BAMEa bukatu eta gero, beste beka bat eskatu nuen. Orduan Ingurunearen Arretako master bat ematen zen, Iruñean. Uraren kalitatea neurtzen zen, airearena, enpresek zer hondakin sortzen zituzten aztertzen zen. Herri bakoitzean titularra zen medikuak –bakarra zegoen herri bakoitzean– inguruneke datuekin txosten bat osatzen zuen. Hori dena ikasi nuen master horren bidez, eta horrekin arituko nintzen ia lau urtez, Grosen, Donostian. Gero, oposiziora aurkeztu nintzen familia medikuntzako plaza lortzeko. Familia sendagile formakuntzako koordinatzaile lanetan beste urtebete egin nuen: ospitaleetan-eta izaten diren errotazioak koordinatzen nituen. Gero Zumaiara etorri nintzen. Plaza lortu nuenetik hemen egin ditut urte guztiak.

Nola gogoratzen dituzu Zumaiari igarotako lehen urteak?

Tren geltoki zaharrean [Moilaberriari] hasi nintzen lanean. Gogoan dut hasieratik familia medikuak formatzen hasi ginela; haien tutoreak ginen. Tutore izateko ere Gobernuaren baimena behar duzu; eskatu egin behar da, eta edozein zentrok ez du lortzen baimen hori. Leku polita zen, baina espazio falta genuen. Kontsultak oso txikiak ziren, administrariak apenas zuten lekurik, ez zegoen igogailurik; negu garaian euria ere barruraino sartzen zen. Gogorra izan zen. Denbora askoan egon ginen han, eta zentro berria

"FILOSOFIA EGIN NAHI NUEN, BAINA AITAK ESAN ZIDAN EA ZER EGINGO NUEN IKASKETA HORIEKIN"

"GU ERE ESPEZIALISTAK GARA; FORMAKUNTZA LAU URTEKOA DA, OSPITALETAN LAN EGITEN DUGU"

"HISTORIAL KLINIKOAK DIGITALIZATZEN LEHENENGOAK IZAN GINEN ESTATU MAILAN"

egin arte gaizki pasatu genuen. Giro oso ona genuen, hori bai. Nik uste betidanik izan dugula familia giroa erizainen, administrarien eta gure artean. Oso ondo moldatu gara elkarren artean. Gero, hau [Basadiko zentro berria] sortu zutenean, unitatea eratu genuen Zestoa, Getaria eta Aizarnazabalekin batera, eta sesio klinikoak egiteko biltzen hasi ginen.

Zumaiara etorri nintzenean historial guztiak paperean zeuden. 1991n zen, eta ordenagailurik ez genuen. Pertsona bat behar genuen txosten horiek guztiak sailkatzeko, historialak atera eta berriro sartzeko. Pertsona bat horretarako bakarrik. Pentsa, 8.000 lagunehistorialak zeuden –orain, dagoeneko, 10.000 gara–, eta asmatu genuen sistema bat kolore bidez historialak sailkatzeko. Hori dena eskuz egin genuen, inprobisatzen. Gero, ordenagailuak ekarri zituztenean, historial klinikoak digitalizatzen lehenengoak izan ginen Estatu mailan, beste hiru zentroekin batera. Alde horretatik, puntakoak izan ginen. 1995ean izango zen. 2002. urtean osasun zentro batean egiten diren prozesu guztiak ISO moduan lantzen hasi ginen, eta hobetze jarraitua ere abian jarri genuen. Sistema hori ezartzen estatu mailako lehen zentroetako bat izan zen Zumaiakoa.

Mediku egoiliarra nintzenean ez nekien zer idatzi behar genuen historialetan, ezta non ere; bakoitzak nahi zuena idazten zuen. Historial bat hartzen zenuen, eta ez zenekien nondik hartu ere. Hasi ginen aztertzen zer eduki izan behar zuten historialek, non jarri behar ziren, zer egin. Alde horretatik, garai oso-oso emankorra izan zen.

Taldea hitza aipatu duzu. Zer nolako harremana izan duzue zentrotako langileen artean?

Horri garrantzi handia eman diogu. Bileretan denok egoten ginen. Ospitaleetan-eta medikuek beraien aldetik egiten dituzte bilerak, erizainek beste aldetik, eta administrariak ere beraien aldetik. Gu, normalean, hilean behin edo bitan biltzen ginen denok, ikusteko nola egiten genuen lan, gauzak azkarrago nola egin ikusteko... Lan egiteko sistema horretan sinetsi genuen.

Pentsa daiteke familia mediku batek gertutasun handiagoa izango duela pazienteekin espezialista batek baino.

Normalean, gure espezialitatean, irtenbide bat aurkitu behar duzu: ezin duzu pertsona bat bueltaka eduki zuk zer egin ez dakizulako. Horretarako, oso formatuta egon behar duzu; jakin behar duzu noraino heltzen den zure



30 urtez izan da Patxi Ezkurra Zumaiaiko Osasun Zentroko zuzendaria.

ezaguera, zuk dakizun hori. Dakizun hori ondo egin behar duzu, eta hemen bertan egin behar duzu. Oinarrizko arretak arazoaren % 80ri ematen dio irtenbidea. Osasun sistemarako oso albiste ona da hori. Orain, zerbait ez badakizu, hobe da beste norbaitengana bideratzea.

Etengabeko formakuntza behar-beharrezkoa izango da.

Jendeak pentsatzen du gu artatzeko gaudela, baina artatu ahal izateko eguneratu behar duzu, zure ezaguera eguneratu behar duzu. Ahal dugunean kongresuetara joaten gara, eta ikerketak ere egin izan ditugu. Urte hauetan dugun arazoa da pertsonal gutxiago dugula; sentsazio horrekin nago. Dena murriztu dute; aurrekontuak, askotan. Astirik ez baduzu, zailagoa da eguneratze lan hori guztia. Baina, hala eta guztiz ere, hemen mediku egoiliarak ditugu beti, horrek behartu egiten zaitu saioak egitera eta eguneratzera.

Osakidetzaren fama ona kolokan jarri da azken urteotan. Zuk aipatzen zenuen murrizketek izango zuten hor zerikusia.

Klaro. Lehen arretan zein da errekurtsua? Pertsona da errekurtsua. Orain zer gertatu izan

da? Jende asko formatu dugu, baina jende horrek gero ez du plazarik lortu eta atzerrira joan izan da lanera. Asko ospitaleetara joan dira larrialdi zerbitzuetara; familiako sendagileak daude ospitaleetako sarreretan lanean, etxeko ospitalizazioan, epidemiologo lanetan, kudeatzaile lanetan. Pertsonala murriztu egin da, eta garaia heldu denean, beharra zegoenean, jenderik ez genuen. Pertsonalik ez badago, horrek zaildu egiten du guztia. Gero, ospitaleetan aurrekontuak asko igo dituzte, farmako berriak ere sortu dituzte, eta oso garestiak dira horiek. Tratamendu horiek sistema xurgatzen dute, eta horrek gudan eragina du. Egia da orain tratamendu batera handia dagoela. Orain erresonantzia bat, kolonoskopia bat, ekografia bat eska dezakegu hemendik. Gero, soluzio bat aurkitu behar duzu, baina dena hemendik egin dezakezu. Lehen ez genuen horrelakorik; lehen kanpoko espezialista batengana bidali behar zenuen. Gu oso efektiboak gara, oso efizienteak. Oso garrantzitsua da oinarrikoa zaintzea, bestela dena hasten da betetzen, eta pikutara joango da. **Orain pare bat urte, 2020ko martxoan, pandemia heldu zen guregana eta dena aldatu**

zen. Lehen albisteak heldu zirenean, pentsatzen al zenuten halako eragina izango zuenik?

Oso gaizki pasatu dugu. Ziurgabetasun hori genuen, inork ez zekien zer zen hau. Ez genuen tratamendurik, eta ikusten genuen, gainera, oso erraz kutsatzen zuela. Jendea hiltzen ikusten genuen. Guk ere beldurra genuen etxera joaterakoan, gure senideei birusa transmititzeko beldurra genuelako. Oso gogorra izan zen. Hemen ikusi ditugu pertsonarik gogorrenak behea jota, etxera zihoazela esaten antsietatea zutelako; Ikusten zenuen pertsona bat ez zegoela ondo eta ospitalera eraman behar zenuela; ikusten zenuen egoitzetan kutsatze maila handiak zeudela; hainbeste patologia zituen jendearekin erabakiak hartu behar zenituela; familiak ikusteko aukerarik izan ez duen pazienteari zainketa aringarriak ezarri behar izan zenizkiola; telefono dei bat jasotzea gaueko orduetan norbait gaizki dagoelako eta hiltzera doalako. Oso-osoa gogorra izan da hori.

Olatu baten atzetik beste bat etorri da, gainera.

Orain txertatuta gaude eta horrek lasaitasun handiagoa ematen du. Baina ikusten dugu gehiago falta dela oraindik. Guk ez dakiguna da txertoa jarri eta gero gorputzak zenbat antigorputz sortzen dituen; agian ez ditu sortu behar adina. Txerto guztiak bezala, zenbat eta dosi gehiago jaso, duzun erantzuna handiagoa da. Orain arte birekin egon gara, baina ikusita nola gauden, hirugarrena beharrezkoa izango da.

Gero, txertatzen ez direnak daude. Okerrena izan da jende bat etortzea hona, kontsultara, gaizki daudela esan, baina, hala ere, ez direla

"LEHEN ARRETAN ZEIN DA ERREKURTSOA? PERTSONA DA ERREKURTSOA?"

"OSO GAIZKI PASATU DUGU; ZIURGABETASUNA GENUEN, INORK EZ ZEKIEN ZER ZEN HAU"

"EZ GAUDE XVI. MENDEKO AKELARREETAN; GAUZA SERIOA DA, JENDEA HILTZEN ARI DA"

txertatuko. Ordu erdi egon zaitezke azalpenak ematen, eta hala ere entzun behar duzu ez direla txertatuko. Horrek min egiten du, eta ez naiz eztabaidatzen hasten. Zuk ez baduzu ezer egiten, badakizu gaixotasunak zer egingo dizun. Eta gure mende honetan ikerketa zientifikoak aurreratuta daude. Nik erremedio bat badut, hori aldizkari zientifikoetan argitaratzen da, aldizkari garrantzitsuenetan, *Science*-n, *The Lancet*-n, eta hor datuak jarri behar dituzu; edonork ikus dezake zer egin duzun, gezurtatu dezake, edo esan ez dagoela ondo. Ezin dena da ezer publikatu ez duen norbaiti, ezer egin ez duen bati, zertxobait esan duelako hari kasu egin. Ez gaude XVI. mendeko akelarreetan. Gauza serioa da, ikusten ari gara jendea ZIUetan dagoela, eta beste batzuk hilda.

30 urte egin dituzu Zumaian, osasun zentroko buru. Jendea hazten ikusi duzu, eta umeak zirenak heldutasunera heltzen ere ikusiko zenuen.

Familia medikuntzak duen onena hori da. Pertsona batzuk jaio zirenetik ezagutu dituzu; ezagutu dituzu haien gurasoak, anai-arrebak, eta hor badakizu nolakoa den familia hori; horrek asko lagundu ditu. Niretzat hunkigarriena da bizitzaren amaiera, eta bizitzaren amaiera asko asistitu behar izan ditut, aringarriak ezarri-eta. Une hunkigarrienak izan dira, baita aberasgarrienak ere. Askok ikasten duzu, ikusten duzu nola joaten garen bizitza honetatik. Urte hauetan guztietan zumaia askori lagundu behar izan diot bere azken uneetan, eta agian horrekin geratzen naiz. Gogorrena izan da, baina baita hunkigarriena ere.

Orain erretiroa hartuko duzu. Medikuntza erabat utziko al duzu? Zer asmo dituzu?

Diabetesa asko interesatzen zait, eta nazioarte mailako taldeetan nabil; hor zerbait egiten jarraituko dut. Ziur aski unibertsitatean apuntatuko naiz. Nik uste bizitzan beti erronkak izan behar direla; erronkarik ez baduzu, hilda zaude. Denei esaten diet bizitza honetan erronka batzuk izan behar direla, eta beti egongo dira erronka horiek, ingelesa ikastea ez bada, beste zerbait. Gero, giro sozialean, lehen ez nuen hainbeste denbora lagunekin egoteko, eta orain gehiago izango dut. Oporretarako joateko denbora ere izango dut, garrantzitsua ere bada eta hori. Niri, gainera, bidaiatzea asko gustatzen zait; beti izan naiz bidaiatzailea eta hala jarraituko dut... bitxo honek uzten badigu, behintzat! ■■■

Gertutasuna Internetez ez da saltzen

Internet bidez erosteko joeraren gorakadak, pandemiak eta arrakala digitalak gogor kolpatu du tokiko merkataritza, salbuespenak salbuespen –pandemiak mesede egin dion negozioerik bada, eta denda batzuk ere zabaldu dituzte–. Denda batzuek pertsianak jaitsi beste erremediorik ez dute izan. Horietako hirurekin bildu da *Baleike*.

Testua:

Maria Maya Manterola.

Internet bidez erosteko joeraren gorakadak, pandemiak eta arrakala digitalak gogor kolpatu du tokiko merkataritza, salbuespenak salbuespen –pandemiak mesede egin dion negozioerik bada, eta denda batzuk ere zabaldu dituzte–. Denda batzuek pertsianak jaitsi beste erremediorik ez dute izan. Horietako hirurekin bildu da *Baleike*.

Zazpi-zortzi saltoki itxi dira azken hilabeteotan Zumaian. Erretiroagatik batzuk, eta salmenten beherakadak eragindako itolarriaren ondorioz beste batzuk: Galdona, Ardantzabide, Marisa oinetakoak, Don Cien... Eta datozen hilabeteetan ixtera doala iragarri duenik ere bada: Julio Curielen ile apaindegia edo Pauma arropa denda. Banku batzuek beren bulegoak ere itxi dituzte, Banco Sabadell Guipuzcoanok edo BBVak. Herriko kale komertzial nagusia zena, Erribera kalea, lokal hutsez beteta dago.

“Itxialdian, tokiko merkataritza izan zen gure sostengua”. Hala dio Lore Garcarena Zumaiaiko Gertu merkatarien eta ostalarien teknikariak. Kaleetara itzuli dira herritarrak, baina tokiko merkataritzaren salmentetan, behintzat, ez da pandemia aurreko zenbakietara bueltatu.

Garciarenaren hitzetan, aberastasun ekonomikoaz gain, “abertasun pertsonala eta komunitatearena” ematen dio herriari tokiko komertzioak. Horregatik, gogoeta egitera bultzatu nahi ditu herritarrak: “Norberak hausnartu behar du

Lore Garcarena, Gertu Zumaiaiko merkatarien eta ostalarien dinamizatzailea.



no lako auzoak eta herriak izan nahi ditugun. Pentsatu behar dugu aberastasuna herrian utzi nahi dugun, edo ez zaigun axola Internet bidez erosi eta ez jakitea zergak ordaintzen dituzten, nora doan diru hori... Zer utzi nahi diegu gure ondorengoei?”.

Internet bidez edo herritik kanpo erosteak, gainera, ingurumenari kalte egiten dio, Garcarenaren arabera. “Denda txiki batek urtean bi aldiz erosten du, eta arropa gordeta eduki. Herritik kanpo edo Internet bidez, berriz, garraioaren kutsadura askoz ere handiagoa da, eta gainera, erosi-bota-erosi logikari jarraitzen zaio”, dio. Baior dago, hala ere, Garcarena, jendea “kontzientziazten” ari dela uste baitu.

Mila lan

Egoera ez da gozoa, baina merkatariak esfortzu bat egiten ari direla iruditzen zaio dendari elkartearen teknikariari. Ohartarazi du merkatarien lana ez dela saltzea bakarrik: “Kontabilitatea, erakuslehoak jarri, prezioak... Mila lan daude, eta Internet bidez saltzearena beste bat gehiago da. Eta bi denda kudeatzea bezalakoak da: stocka, prezioak... Hori egun batetik bestera ezin da egin”, azaldu du. Gainera, “hori ez da helburua”: “Fisikoki gertutasuna mantentzeko daude”.

Teknologia berriek erraztasunak eman ditzakete, baina oztopo ere izan daitezke. Ticket BAI sistema –merkatariak salerosketak egiten dituztenean automatikoki salerosketa hori Ogasunera bideratzeko sistema– aipatu du, esaterako, Garcarenak. “Arabak eta Bizkaiak bi urte atzeratu dute ezarpena; Gipuzkoak sei hilabete. Lehendabizikoak izango gara hori martxan jartzen. Igual ez da orain momentu egokiena. Teknologia egokitu behar da eta inbertsio batzuk egin; kutxa erregistratzaile bat daukanak izugarritzko saltoa egin behar du alde horretatik. Diputazioari eskatu zaio atzeratzeko; ez dakit kasurik egingo diguten”.

LORE GARCARENA: "ITXIALDIAN TOKIKO Merkataritza izan zen gure Sustengua"

Egoera dendarien hitzetan

ITSASO GRANADOS, PAUMA ARROPA DENDA

“Irailean sei urte beteko lituzke dendak. Lehendabizi haurren arropa denda zabaldu nuen; gero, duela urte eta piko, emakumeena. Aldameneko lokala itxi zen, eta salmentak gutxitzen ari zirenez, pentsatu nuen lokal horretan emakumeen arropa jarrita oreka nezakeela. Urtebete lehenago erosten ditugu bildumak, eta aurreikuspenekin jokatu behar izaten dugu. Hori da okerrena, urtebete ez dakizulako zer aldatuko den. Herritik atera ezin ginenean gorakada bat izan nuen salmentetan, eta gehiago eskatu nuen, baina ez dira aurreikuspenak bete. Askoz ere gehiago jo dugu Internet bidezko salerosketara. Nik banekien horretara gindoazela, baina ez nuen uste hain azkar horrek ixtera eramango ninduenik.

Instagram erabili izan dut arropa saltzeko. Baditut Zumaiatik kanpoko bezeroak, bizkaitarrak eta. Gutxitan etortzen dira, baina badakite zer daukadan, eta arroparen argazkiak bidaltzeko erabili izan dut. Funtzionatzen duela uste dut, baina lana ematen du. Nik eguerdietan ixten nuen, 13:00etan, eta 17:00ak arte bideoak grabatzen egoten nintzen. Ez da aurrez aurreko salmenta bakarrik. Kolekzioak ikustera ere joan behar izaten da, esaterako. Lehen agente komertzialak etortzen ziren dendetara; orain zuk joan behar duzu beraiek dauden tokira.

Gabonak oso txarrak izan dira, denda zabaldu nuenetik okerrenak. Ez zebilen inor. Lehen beste bizipoz bat sumatzen nuen. Jendea etortzen zen afaria zeukalako eta kamiseta berri bat eraman nahi zuelako, adibidez. Hori galdu egin da. Uste nuen itzuliko ginela lehengora. Etxeratzearen ondoren jendea kontzientziatuta zegoela ematen zuen: herrian bertan erosi, erosketa bonoak... Lehenengo hilabetetan bai, baina gero berriz erori dira salmentak. Oraintxe bertan zaila egiten zait pentsatzea buelta emango diogula. Gero jendea etortzen da esanaz herria hiltzen ari dela. Ez da nire ardura; nahiago nuke zabalik mantendu. Nire proiektua da eta gogo handia jarri diot. Hala ere, gehienak eskertuta daude dendak egin duen ibilbidearekin. Ni baino helduagoak direnak ohituta daude tokiko komertzioan erostera. Nahiago dute etxera eraman, probatu eta itzuli. Baina gazteagoak ez, dena Internet bidez erosten dute. Edo bestela, gune komertzial batera joan eta eguna bertan pasatzen dute.

Alokairuak ere oso altuak dira. Badaude alokairuetarako laguntzak dituzten herriak, baina ulertzen dut denerako ezin direla laguntzak egon. Otsaila zabalik mantenduko dut, eta gero ikusiko dut. Baina ez dut gehiegi luzatu nahi”.



Itxaso Granados, Pauma arropa dendan.

"NI BAINO
HELDUAGOAK OHITUTA
DAUDE TOKIKO
KOMERTZIOETAN
EROSTERA"

"PRODUKTU FRESKOA GERTUKO KOMERTZIOETAN EROSTEKO OHITURA ZEGOEN LEHEN"



laz itxi zuen fruta denda Maria Jose Gomezek.

MARIA JOSE GOMEZ, GEREZI FRUTA DENDA

"Fruta denda zabaldu nuenetik 32 urte pasatu dira; jendeak ez du sinetsi ere egiten. Pena handia ematen dit itxi behar izateak, batez ere bezeroengatik. Komertzio txikiaren gainbehera pandemia baino lehen hasi zen, halere. Nire sektorean, elikadurarenean, nabaritu da merkataritza gune handien irekiera. Ehungintzan, berriz, Internet bidezko salmentek izango zuten eragin handiagoa. Uste dut jendearen erosketa ohiturak aldatzen ari direla. Nire semearekin ere zenbat liskar izango ote nituen horrengatik? Esaten diot aurrena herrian begiratu behar dela.

Urte oso onak ere izan ditut. Produktu freskoa gertuko komertzioetan erostera ohituta zegoen jendea lehen. Urteek aurrera egin ahala aldatu da ohitura. Ohartu dira erosoia dela supermerkatuetan eta gune komertzial handietan erosketa egitea, dendarik denda ibili beharrik izan gabe. Ez dut uste arazoa prezioak direnik, are gutxiago tratua. Gune komertzial handi horietan tabernak daude, haurrentzako jokoak, arratsalde osoa pasa dezakezu bertan... Plan konpletoa da.

Egia da konfinamenduan lan egin nuela, funtsezko zerbitzua delako elikadurarena. Asko saldu nuen, jendea behartuta zegoelako gertuko komertzioan erostera. Konfinamendua amaitutakoan lehengo ohituretara itzuli ginen, ordea. Salmentak erori egin ziren berriz ere. Aldi baterako erregulazio asko izan dira, eta familien eros ahalmena jaitsi egin da. Urteotan jende gehiago izan dut nirekin lanean. Azken urteetan ez, salmenten jaitsieraren ondorioz ez nuelako horretarako aukerarik.

Udaldian asko saltzen genuen lehen, maiatzetik irailera arte. Urtea igarotzeko koltxoia egiten genuen. Aldatu egin da joera hori. Ez dago urteko gainerako hilabeteekin alde handirik. Turismoari dagokionez, Zumaia bisitatzera datorrena eguna pasatzera dator. Gutxi kontsumitzen dute: fruta pieza bat, botila bat ur...

Arrakala digitala ere bada faktore bat. Eguneratu egin behar dugu, eta horrek inbertsioa eskatzen du. Nik, esaterako, balantza aldatu beharra neukan. Guretzat, 50 urtetik gorakoentzat, eragozpen handia da. Teknologia berrietan inbertitzea alferrikakoa da ez bagara horiek ondo erabiltzeko moduan formatzen.

Diru sarrerek ez ziren lehengoak. Denda bat zabalik mantentzeak lanordu asko eskatzen ditu, eta konturatu nintzen ez zuela merezi. Horrez gain, TicketBAIren kontua ere hor dago. Formatu egin beharko nuke. Urte on asko izan ditut eta horrekin geratuko naiz. 30 urte izan banitu jarraituko nukeen, baina adin honekin ez. Prezioak ere igo dira, eta jendeari azalpenak eman behar izan dizkiogu beharrezkoak zaizkigun produktu horien prezio igoeraz.

Horrela jarraituz gero, hemendik urte batzuetara Zumaia herri tristea eta hutsa izango da. Dendetatik ateratzen den argia, Gabonetako erakusleihen apainketak, jendeak dendetan izaten dituen elkarrizketak... Pena da erlojuari pilak aldatzeko edo jostorrazak erosteko kilometroak egitea".

Lokala nirea da, eta salgai dago. Urtebete lasai pasatu nahi dut orain, familiaz gozatu, egin ezin izan ditudan gauzak egin...".

AMAIA LOPEZ, SORGINAK ZAPATA DENDA

“Saltzaile lanetan, izebarenean aritu nintzen lehenbizi, Goofy dendan. Gero Sorginaken hasi nintzen lanean. Nire nagusiek azoka txikietan egiten zuten lan. Lan gogorra zen haiena: goizaldean esnatu behar izaten zuten, 04:00ak aldera, eta arratsaldean itzultzen ziren bueltan etxera. Zapatagileekin ere kontaktu zuzena zuten, eta haiengana joaten ziren zapatak erostera. Beraiek hala proposatuta hasi nintzen lanean zapata dendan.

Esan daiteke lan hau DNAn daramadala. Baina nirea ez da denda soil bat; hemen istorioak gertatzen dira. Mila konta ditzaket. Hogei urte daramatzat honetan lanean; sei hemen nagusi. Nire nagusiak erretiroa hartu zuen, eta niri eskaini zidan. Niretzat zaila izan zen erabakia hartzea, banekielako zer zegoen denda bat edukitzearen atzean. Baiezkoa eman nuen, pentsatuz ondo ez bazihoan, utz nezakeela. Pentsa, ixtea buruan neukala zabaldu nuen.

Poligono inguruko jende askok esaten zidan Erriberako denda urrun zegoela. Kontuan hartu behar da, gainera, auzokide hauek ere zahartzen ari direla. Mirentxu zapata dendakoarekin hitz egin nuen, eta hark esan zidan berak uzteko asmoa zeukala. 40 bat urtez izan du bere familiak denda zabalik Aita Marin. Nik, berriz, biltegi bat behar nuen. Nire ahizpak lagundu zidan, eta azkenean denda zabaldu genuen lokal hartan. Bi urte egin genituen ondo, lehen biak, baina nire kasuan, pandemiak okertu du guztia. Azkenean, itxi egin behar izan dugu. Erriberakoa bai, hori zabalik mantentzen da.

Orain dena da Internet bidezko salmenta, eta horrek kalte egin digu. Nik egiten dudana ez da saltzea bakarrik, eta ez dut aurrez aurrekoa galtzerik nahi. Atzo, adibidez, bezero batek besarkada bat eman zidan egindako antigeno probak negatiboa eman ziolako. Jendeak gertuko ikusten nau eta hori eramango dut nirekin.

Konfinamenduan kalean egon nahi genuen, eta kalera atera garenean, etxera itzuli nahi izan dugu. Aplikazioak ditugu ligatzeko, jolasteko, arropa erosteko... Bisitariek leku edo dendaren bat aurkitu nahi dutenean ez dute galdetzen; mugikorrean begiraten dute. Eta hori ez dut gustuko. Benetako jendea begirada batekin topatzen da, eta horrelakorik ez dago sare sozialetan.

Orain lokal hutsak besterik ez ditut ikusten. Urteak eta urteak zabalik zeuden dendak itxi dituzte, eta horrek min egiten du. Erribera kalea bera hutsik dauden lokalez beteta dago. Giltza baten kopia behar dugunean nora joan behar dugu orain? Eta paper biribilki bat behar dugunean? Ez dakit nola gerta daitekeen hori Zumaian.

Ni aurrez aurreko saltzailea naiz, baina ez da hori bakarrik egiten denda batean. Nahiago nuke! Sare sozialak eraman behar dira, eskaparateak muntatu... Eta horrek denbora eskatzen du. Dendari Elkarteak lan egin du, baina gehiago behar dugu”. ■■■■



Erribera kaleko Sorginak zapata dendako jabe Amaia Lopez.

"NIK EGITEN DUDANA
EZ DA SALTZEA
BAKARRIK, ETA EZ DUT
AURREZ AURREKOA
GALTZERIK NAHI"

Ispilura begiratzea bezalaxe

Alberto Vicente eta Alberto Uranga, kamiolariak

Eskolan batera, txirrindulari elkartean batera, soldaduskan batera... Izena ez ezik, ofizioa ere partekatzen dute Alberto Vicentek eta Alberto Urangak. Kamioilariak dira gaztetatik, eta bolanteari helduta jarraituko dute erretiratu arte. Gustura, gainera, ofizioaz gain afizioa ere badute eta.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Kinta berekoak, izen berekoak, ofizio eta afizio berekoak, eta lagunak dira Alberto Vicente eta Alberto Uranga. Kamioilari aritu dira gazte-gaztetatik, etxean horixe jaso zutelako –bien aitak izan dira kamioilariak– eta gustatu egiten zaielako mundu hori. Txirrindulari elkartean batera ibili ziren jubenetara arte, soldaduska ere elkarrekin egin zuten Gurutze Gorrian, eta gaur egun txangoak egiten jarraitzen dute, baita boluntario lanean ere, Zumaiako Txirrindulari Elkartean, lehendakaria baita Vicente, eta laguntzailea, Uranga.

Desberdintasunen bat nabarmentzearren, Urangak bere kabuz egiten du lan "Uranga garraioak" jarrita daukan kamioi gorri batekin, eta bertatik bertara ibiltzen da; lana amaitutakoan, etxera. Vicentek, berriz, Viveros San Anton enpresarentzat egiten du lan, eta distantzia luzeagoak egiten ditu kamioiarekin; Normandiara (Frantzia), Bretainiara eta Eskoziara joaten da batez ere, baina Italiara ere egin izan ditu laneko joan-etorriak. "Behin Tunezeraino iritsia naiz", azaldu du barrez.

Pandemiak Erresuma Batuan harrapatu zuen 2020ko Gabonetan, eta egun batzuk igaro behar izan zituen ez atzera, ez aurrera, Frantziak mugak itxi zituelako. "Famoso egin zitzaigun orduan", gogoratu du barrez lagunak, hainbat komunikabidetan azaldu baitzuen gertatutakoa. "Bizirik dagoen salgaiarekin lan egiten dugu Viveros San Antonen, eta merkantzia lehenbailehen Euskal Herrira bidaltzea zen inportanteena. Azkenean, kamioiaren trakzio-buruarekin gelditu nintzen Erresuma Batuan, atoia bidalita", azaldu du Vicentek. Egundak batzuk geroago iritsi zen bera Zumaiara.

Atzerrira joan-etorrian hainbeste ordu igarotzen dituenek, mimoz zaintzen du kamioia. Lau urte inguru ditu, baina barrura sartzean estreinatuta berri duela ematen du. Lagunari erakutsi dizkio kabinan bertan dituen telebista, mikrouhin labea, nebera txikia, bazkaltzeko nahiz lanerako atera eta sar daitekeen bandeja... Dena dago dotore, ezkutuan. Oheak ere baditu, baten partez bi, litera bihurtzen baita nahi izanez gero.

Biek kamioiari eskaintzen dioten arreta hori, ordea, gutxitzen ikusten dute orokorrean.

"Batzuei berdin zaie kamioia narras eramatea edo



irrimarra



erdi puskatuan dauden zatiek. Lan bat gehiago da hau askorentzat". Gaineratu dute gazteentzat ez dela lan desiragarria, eta Euskal Herrian "txofer falta ikaragarria" dagoela. Urangarentzat eta Vicenterentzat, berriz, bizitzeko modu bat da errepidean kilometroak egitea. "21 urte bete eta kamioiko karneta ateratzeko irrikaz egon ginen", oroitu dute. "Ez genuen ezer ikasi nahi, argi geneukan zer lanbide eduki nahi genuen". Urangak etxekoak konbentzitu behar izan zituen. "Aitak esaten zidan lan gogorra zela eta hobeto nuela tailerrean hasi, baina niri gustatu egiten zitzaidan hau, txikitatik ibili nintzen bolante artean, eta azkenean lortu nuen nahi nuena".

Kamioira igo zirenetik, ez dute besterik probatu. "42 urte ditut kotizatuta", esan du Vicentek. Urte horietan guztietan hobetu dira errepideak eta hobetu dira kamioiak, baina iritsi dira hain onak ez diren gauzak ere. "Jendea presaka ibiltzen da orain errepidean, eta kamioilariei jartzen dizkiguten kontrolak gehiegizkoak dira", azaldu dute. Urangari takografo sistemak ez dio eragiten;

bai, ordea, Vicenteri. Kamioiek azken urteetan derrigor eraman behar duten gailu elektronikoa da takografoa, eta egindako distantziak eta abiadurak neurtzen ditu, besteak beste. Lau ordu eta erdi jarraian gidatu aurretik geldialdia egin behar da, eta hori, askotan, onerako baino, kalterako izaten dela azaldu dute. "Askotan gau partean lasai-lasai ari zara bidaia egiten, baina takografoak gelditzeko eskatzen dizu hiru ordu laurdenez. Geldirik zaudenean sartzen da logura, eta gero jarraitzea kosta egiten da", azaldu du Vicentek. Takograforik ez zenean, otorduak jakineko lekuetan egiten zituztela ere oroitu dute. "Badakizu Frantzia halako tokitan ederki jango zenukeela, baina takografoak gelditzeko agintzen badu, eta jatetxea hiru ordu laurdenetara baldin badago, alferrik da; beste nonbait jan, eta kito".

Zumaiako salbamendu taldekoak

Vicente eta Uranga elkarrekin ibiliak dira Madrilen kamioien lasterketak ikusten Jaramako zirkuituan, eta beste hainbat txango ere

Alberto Vicente

- **Adina:** 58 urte.
- **Ikasketak:** Delineazioko lehenengo gradua egin nuen Azkoitiko Lanbide Heziketa eskolan, baina 16 urterekin ikasketak utzi eta lanean hasi nintzen.
- **Lanbidea:** Kamioilaria.
- **Kamioilaria izango ez banintz...** Beharbada, suhiltzaile.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Lasai egotea, lagunekin afaritara joatea...

Alberto Uranga

- **Adina:** 58 urte.
- **Ikasketak:** Zarauzko Antoniano ikastetxean Lanbide Heziketako bi maila egin nituen, baina gero lanean hasi nintzen.
- **Lanbidea:** Kamioilaria.
- **Kamioilaria izango ez banintz...** Ez dakit. Kamioilaria, kar-kar-kar.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Bizikletan bueltatxo bat ematea.

egindakoak dira. Baina aisialdi planak ez ezik, boluntario lana ere majo egin dute elkarrekin, bi arlo oso desberdinetan: arriskuan zirenei laguntzen herriko erreskate taldean, eta kirolean, Zumaiako Txirrindulari Elkartearen. Azken horretan lanean jarraitzen dute; ez alferrik, Vicente da elkarteko lehendakaria. "Eta Uranga, nire laguntzailea", esan du irribarretsu; "laguntza eskatzen diogunean beti etortzen da".

Erreskate lana, berriz, soldaduska amaitzean hasi eta hainbat urtez egin zuten boluntario. Aldundiak Zarautzen suhiltzaileen etxea jarri zuenean utzi zioten. "Garai hartan ez zen suhiltzailek, eta ikusi zen beharra bazegoela, errepideetan istripu pila bat izaten zelako. Gero, izan genuen suhiltzaile taldean sartzeko aukera, baita ertzainetan ere, aurreneko promozioak zirelako eta guk ezagutza batzuk bagenituelako boluntario gisa, baina ez genuen nahi izan", azaldu du Vicentek.

Urte haietako bitxikeria bat baino gehiago ekarri dute gogora. "Akordatzen al haiz nola joan ginen Oizen erori zen hegazkinaren istripuaren harira, sutea itzaltzen laguntzera? Durangoko

suhiltzaileek eskatu ziguten, kotxe txikirik ez zutela eta hara igotzeko", batek. Eta besteak: "Eta beste behin nola iritsi ginen Zumaiatik irten eta Urbiara, itzulipurdika ibili zen ertzainen ibilgailukoei laguntzera? Sei ertzainek izan zuten istripua, eta han joan ginen!".

Arrisku uneak besteei laguntzen bakarrik ez, beren lanean ere pasa izan dituzte. "Okerrena izaten da gaua iritsi eta zenbait tokitan bakar-bakarrik gaua igaro beharra", bota du Vicentek. Urangak gogoratu du halako bat. "Garai batean supermerkatu kate batera eramaten nuen merkantzia Madrilerara, eta goizean deskargatzen aurrena izateko, behin toki bakarti batean gaua pasatzea egokitu zitzaidan. Ez zen beste kamioirik gerturatzen eta beldurra pasatu nuen. Lapurreta asko izaten da kamioietan, baita txoferra lo dagoenean ere. Zorionez, ez zen ezer gertatu".

Beldurak beldur, asko eman die eta ematen die ofizio honek. "Bizitzen erakutsi digu lanbide honek, norbere kabuz aurre egiten zailtasunei eta arazoei, eta horrek balio digu bizitzarako. Independentzia ere ematen du, eta hori ere ederra da". ■■■



NON DAGO BALEIKE?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali otsailaren 21a baino lehen.

Saria: TIPITAKIN bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Urtarrileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 30. orrialdean zegoen ezkatututa, eta **Mattin Intxaurre** bazkidea izan da irabazlea.

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



Aita Mari
JATEXEA GRAIA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen seride eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61




Amama
liburua

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hartz Klinika



Ardantzabide, 3^a behea • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56



OKINDEGIA
Arkupe

Naupala, 2 - Tel. 943-80 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es



finis
franch
euskara
englandi
espaniol
catalanar
suomi
frances
ingles
italian
castellano
finnish
ingles
baski
catalan

bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943-14-83 06
bakun@euskainet.net



Basodi
albaitaritza

Ribaitoria
Ikaki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Gozte: 11-13 / Armatzokoz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Lamiakletarako: 605 72 87 07 Elzebe etxeko zerbitzua



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ■ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ■ asesoriarin@asesoriarin.com

Haserrealdiaren kutxa



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Haserrealdiak beharrezkoak dira, eta haurra autonomo bihurtzen hazten den heinean azaltzen dira, batez ere bere erabakiak hartzeko gaitasuna duela konturatzen hasten denean.

Gehienetan haserrealdi horiek akonpainatzeko gai izaten gara, batzuetan pazientzia gehiagorekin, besteetan gutxiagorekin, baina gure seme-alabekin garai hori igarotzen dugu eta lehenago edo geroago haserrealdi bortitzenak pasatu egiten dira.

Hala ere haur batzuek amorraren instintua oso aktibatua dute, eta haserrealdi bortitzagoak izaten dituzte. Gaurkoan, horrelako egoeretan haurrari laguntzeko tresna bat aurkeztera natorkizue. Haserrealdien kutxa.

Haserrealdien kutxa oso erabilgarria da batez ere haserrea azaltzeko zailtasunak dituzten haurrekin. Kutxa honen barruan amorrua era ezberdinetara azaltzeko materialak sartuko ditugu. Horrela, haurrak behar duenean, kutxa hartu eta momentuan egokiena iruditzen zaion materiala hartuko du, gure laguntzarekin, bere emozioa espresatzeko.

Kutxa moduan, etxean duzuen edozein erabil dezakezue; tamaina, berriz,

barruan sartzen duzuen materialaren arabera izango da. Bide batez, ideia polita izan daiteke, baita ere, haurrarekin batera prestatzea, hark hasieratik material hau ezagutzeko.

Zer material sartuko ditugu eta zertarako?

-Telazko pilota: haur batzuek, haserretzen direnean, gauzak jaurtitzen dituzte. Horrek bi arrisku ditu: alde batetik, gauzak puskatzea; eta, bestetik, norbaitek min hartzea botatako objektu horrekin. Telazko pilota, jaurtitzen badugu, ez da puskatzen, horretarako sortua izan delako. Gainera norbait joz gero, ez du minik ematen; beraz, haserrealdietan erabilgarria izan daiteke, haurrak botatzeko nahi duen lekura, nahi duen guztietan.

-Plastilina: batzuetan, haurrek jotzeko joera dute haserretzen direnean. Objektuak jotzeko, pertsonak jotzeko edota beraien burua jotzeko. Horretarako, plastilinazko bola erabil dezakegu. Plastilina jo daiteke, igurtzi daiteke, puskatu daiteke...

KUTXA HAU OSO ERABILGARRIA DA HASERREA AZALTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREKIN

-Puskatzeko orriak:

birziklatzeko orriak, aldizkari zahar bateko orriak, egunkarietako orriak... erabil daitezke. Eta, horrela, ipuin edo liburu bateko orriak puskatu beharrean, horiek puskatu eta gero birziklatzera bueltatuko ditugu.

-Zapaltzeko alfonbratxoa: gainean salto egiteko erabil daiteke. Salto egitean energia bideratu eta lasaitu egiten gara.

-Marrazketa: haserrea marraztea oso erabilgarria zain daiteke. Bakoitzak bere erara marraztu eta margotu dezake.

-Idazteko koadernoak: haur helduagoek erabili dezakete; hemen bere sentimenduak edo irainak idatz ditzakete, esan beharrean.

Garrantzitsua delako ateratzea, eta behin kanpora aterata, lasaitu egiten gara. Gero idatzitakoa, gorde daiteke, edo suntsitzea ere badago, irainen kasuan, adibidez.

-Arnasketa. Garrantzitsua da tresna horiek erabiltzean, arnasketarekin bateratzea, horrela pixkanaka arnasketa lasaigarria barneratzen.


Bukatzeke, gogoratu emozioak azaltzearen garrantzia, eta ez ahaztu helburua: emozio horiek hitzez azaltzea. ■■■

Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro handi honi, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak dira onak, baina bigarrenak, sei hizki dituenaz, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D	O				G
	R		D		

Margotu





Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien islaren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskopeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.





Itzala

Hona hemen Maripurtzil eta Pelloziri otsoz eta Txanogorritxo mozorrotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.



ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
W	X	Y	Z	.	:	,	!	?	+	=


Bide batez, eman kolorea irudi hauei ere.

Mezua

Konturatuko zinen bezala, orriotako jolasen gaiak liburu oso ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istorio ospetsu baten izenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.



ETA NI EZ AL NAU INORK GOGOAN?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com asadorbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com



RPS 18/16

EGOKI



Erlaju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Ertz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garaa

Carlos Cintero / Ainhoa Olazola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua


Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxes 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure-Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarfi



Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrek eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60





Itsas bitxien aterpeak

Iragan abuztuan Deba-Zumaia arteko Biotopoko mareartekoan aritzeko baldintzak zorrotz zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta, handik aurrera, arrantza bakarrik ez, erabilera publikoa ere mugatuta dago zenbait kasutan. Aipatutako Biotopoa izendatu zenean zeresan eta polemika handia sortu zituen bertako bi erreserba guneez, eta horiek aintzat hartuta, artikulu honetan itsas eremuak babesteko formulak aztertuko ditugu.

Testua: **Gonzalo Torre.**

L

ehorrea gertatzen den bezala, itsas aldeko balio handiko lekuak zaintzeko premia ere badago, eta toki horien ezaugarri ekologikoak behar bezala gordetzeko babeslekuak izendatu ohi dira. Espainiako Estatuan babes hori modu ezberdinetan ematen da eta naturagune horiek deklaratzeko hainbat erakunderen esku dago. Alde batetik, arrantza edo itsas erreserbak daude; hau da, itsas baliabideen ustiapena iraunkorra izan dadin, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak edo autonomia erkidegoek ohiko arrantza tokietan ezartzen dituzten eremu mugatuak. Bestalde, itsas eremu bateko baliabide naturalak eta prozesu ekologikoak egoki mantentzeko itsasoko eremu babestuen sareak daude, autonomiek edo Trantsizio Ekologikorako Ministerioak hala erabakita.

Azken multzo horretan Europako Natura 2000 Sareko tokiak daude, batez ere, baina badaude autonomia erkidegoek izendatutako guneak ere. Horieta kokatu beharko genuke etxe ondoko biotopoa edo Gaztelugatxekoa. Bi biotopo horiek aipatzea ez da kapritxoa; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko mailan itsasoko eremua arautzen duten babesgune bakarrak dira.

Itsas erreserbak

Esan bezala, itsas erreserbak gune bereziak dira, eta arrantzarako intereseko baliabideak modu iraunkorrean ustiatzea dute helburu. Normalean, ohiko kaletako eremu zehatzetan babes neurriak ezartzen dituzte eta, besteak beste, arrantza intereseko espezieen ugalketa baldintzak hobetzea eta haien kumeen biziraupena hobetzea izaten dute xede. Bada, ia salbuespenik gabe, itsas erreserbek ondoko kalak nabarmen berreskuratzea dakarte. Zergatik? Babesgunearen barruan ugalketa babestuta izan duten espezieak gero kanporantz sakabanatzen direlako.

Espainiako Estatuan 33 itsas erreserba daude, eta Galiziak Coruñan izendatutako bi itsas erreserba eta Andaluzian beste bi kenduta, halako eremu ia guztiak Mediterraneo itsasoan daude. Nabarmentzekoa da Balear Uharten kasua, Estatuak edo autonomia erkidegoak izendaturik, irletan 13 itsas erreserba baitaude. Beste erreserbak Kanarietan, Katalunian, Murtzian edo Valentziako erkidegoan daude.

Guneok kudeatzeko arauak erreparratuta, arrantza profesionalak mugak ditu (denboran edo espazioan), itsaspeko arrantza gehienetan debekatuta dago eta urpekaritza baldintzatuta, baita itsasontziak ainguratzea ere. Bestelako



Espainiako Estatuan Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak izendatutako itsas erreserbak.

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA



Isla de Mouro (Kantabria). IÑAKI PÉREZ DE ALBÉNIZ (CC-BY-2.0)

EAE MAILAN ITSASOZKO EREMUA ARAUTZEN DUTEN BABESGUNE BAKARRAK DIRA BIOTOPOAK

ESTATUEK EKOSISTEMAK ETA HEGAZTIAK BABESTEKO LEKUAK PROPOSATU BEHAR DITUZTE

KANTAURI ITSASOAN NATURA 2000 SAREKO HAMABI ITSAS EREMU DAUDE

erabilerei dagokienez, alde nabarmenak daude erreserba batetik bestera.

Natura 2000 Sareko tokiak

Natura 2000 Sareak Europako bi direktiba ditu oinarri, Hegaztiena eta Habitatenena, hain zuzen. Haien arabera, estatuek ekosistemak eta hegaztiak babesteko lekuak proposatu behar dituzte, Europa mailan naturagune babestuen multzo erraldoi bat osatzeko. Natura 2000 lehorreko eremuek osatzen dutela dioen ideia orokorraren aurrean, aipatutako bi direktibek itsas espazioak ere babestu behar direla agintzen dute. Estatu bakoitzean sarearen garapen maila askotarikoa da eta Espainiako Estatuan azken berrikuspena 2020. urtean egin zen. Orain arte, 100 bat eremu daude izendatuta.

Itsas erreserben kasuan ikusi dugun bezala, Espainiako Estatuko itsasoko Natura 2000 Sareko espazio gehienak Mediterraneoan edo Kanarietan daude, eta Atlantiko aldekoak % 10 inguru baino ez dira. Dena den, naturaguneak izendatzeko eskumenarekin lotutako paradoxa bat aipatu



Gaztelugatxe eta Aketx. ANDER ABADIA CC BY-SA 4.0

behar da; izan ere, Kantauri itsasoko hegoaldeko fatxadari itsas puska bat biltzen duten beste espazio ugari dago, baina haiei autonomia erkidegoek ezin izan diete itsas babesgune izaera aitortu; botere hori Estatuaren esku baitago. Horietakoak dira, esaterako, Bizkaiko Gaztelugatxe, Kantabriako Ribadesella eta Tinamayor itsasadarrak, Asturiasko Villaviciosa inguruko ikniten aztarnategiak edo kostalde aurreko Avilésko urpeko arroilen sistema.

Alabaina, datu horiek Frantziako Estatuarekin alderatuta, kontrastea nabarmena da. Nahikoa da esatea ipar Euskal Herrian kostako Natura 2000ko 7 babesgune daudela, azalera handiagoko edo txikiagoko itsas eremu bat barne hartzen dutela, eta guztiak dira hala sailkatutako itsas babesguneak.

Hortaz, Kantauri itsasoan Natura 2000 Sareko hamabi itsas eremu daude. Horietatik sei (bost ipar Euskal Herrian) Habitat direktibaren araberrako Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) dira, eta beste erdia (bakarra hego Euskal Herrian), berriz, Hegaztien direktibak ezarritako Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) dira:

KBE

- Txingudiko badia.
- Euskal kosta harritsu eta haren itsas aurrekoa.
- Abadiako eremua eta euskal erlaitza.
- Donibane Lohizune eta Miarritze arteko itsaslabarrak.
- Urdazuri ibaia (estuaria, bartak eta errekaak).
- El Cachucho Babestutako Itsas Eremua eta Kontserbazio Bereziko Eremua (Asturias)

HBBE

- Bidasoaren estuarioa eta Hondarribiko badia.
- Miarritzeko arroak: Bouccalot eta arroka biribila.
- Mundakako itsasadarra eta Ogoño lurmuturreko itsas eremua.
- Portiosko uhartetxoak, Conejera Irlaren eta Mouro Irlaren itsas eremua (Kantabria).
- Peñas lurmuturreko itsas eremua (Asturias).
- Candelaria lurmuturraren, Ortigueira itsasadarraren eta Estaca de Bares lurmuturraren itsas eremua (Galizia).



EAEko babesguneak

Orain arte, EAEko naturaguneak 1996ko Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen pean izendatu ohi dira, eta arautegi horren arabera, babestutako guneak Parke Naturalak, Biotopo Babestuak edo Zuhaitz apartekoak izan dira. Edonola ere, 2021eko abenduan Euskadiko natura ondarea kontserbatzeari buruzko Legea argitaratu da eta indarrean jarriko den momentutik –2022ko apiriletik aurrera– babestu nahi diren guneen

izendapenak eta deklaratzeko prozedurak aldatu egingo dira.

Deba-Zumaia tarteko Biotopoen ere itsasaldeko zatia lehorrekoa baino handiagoa da, eta Biotopo osoaren % 87 hartzen du barne. Gainera, Aizpuntatik Aizbeltzera eta Sakonetako Puntatik Aitzuriko Puntara, bi itsas erreserba daude, izen horrekin Kantauri itsasoko bakarrak. Hala ere, hasierako Mediterraneoko itsas erreserbekin alderatuta, bi eremu horien azalera oso txikia da, 141 hektarea inguru, bi herrien arteko Biotopoko azalaren % 3,75 baino ez dute hartzen erreserba hauek.

Babesguneen kopurua handitzeko beharra

Deba-Zumaia tarteko Biotopoen itsas babeseko zona oso handia da, 3.752 hektareakoa, hain zuzen, baina horren barruko itsas erreserbako guneek hartutako azalera huskeria hutsa da. Esan bezala, azalaren % 3,75 da eta Biotopoko kostaldeko lerroaren bosten bat. Beraz, EAEko itsasertzean, Gaztelugatxeko eremua ere batuta, gizakion jarduerarako (arrantzarako, urpekaritzarako, itsasontziak ainguratzeko...) mugatutako azalera ez da 300 hektareatarra heltzen. Eta ustearen kontra, Biotopoen gainerakoan itsaski bilketa edo kirol arrantza ez da gure kostaldeko edozein lekutarako araututakoaren desberdina.

Puntu honetara helduta, hausnarketarako argudio bat. Izan ere, isileko arrantza edo itsaski bilketak norberak eguneroko janaria bilatu behar zuen garaien kontua dirudi. Gaur egun, itsasoko gehiegizko ustiapena ikusirik eta itsaspekua denon ondarea dela kontuan harturik, ezikusiarena egin eta beste aldera begira jar gaitetzke? ■■■



Hendaiako bikiak. DAVIK VILLAFRUELA CC BY-SA 3.0

PUBLIZITATEA

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

KALARI

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAI A

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL

estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAI A
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

LIDEN

eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.

TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industrigunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

OSA BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAI A, S.L.

Joxe Mari Kortza Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza

altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

Antimilitarismoaren aldarriak Zumaia hartu zueneko

Euskal Herriko udalerrri askotan bezala, antimilitarismoaren aldarria ozen entzun zen Zumaian 1980 eta 1990eko hamarkadetan. Herritar batzuk ere epaitu zituzten derrigorrezko soldadutzari uko egin eta ordezeko gizarte zerbitzua ez egiteagatik. *Baleike* aldizkariaren lehen urte haietan ere izan zuen isla borroka hark.

Testua: **Juan Luis Romatet.**

Espainiako eta Frantziako indar armatuek deitutako derrigorrezko soldaduskan parte hartzeari uko egin zioten hainbat euskal herritarrek. Lehenbizi, kontzientzia objektore egin ziren, eta soldadutza ez egitea erabaki zuten. Haren ordezkari, gizarte zerbitzuak egin behar izan zituzten. Urte batzuk geroago, ordezeko gizarte zerbitzuak ez egitea erabaki zuten ehunka, milako lagunek, eta gizarte zerbitzu horiek betetzeari intsumiso egin ziren. 1980ko eta 1990eko hamarkadan nabarmendu zen mugimendu hori, eta bi estatuetan soldaduska amaitzea lortu zuen. Espainiako mugimenduaren zatirik handiena Euskal Herrian garatu zen, eta ehunka gazte kartzelara eramán zituen.

Euskal Herri osoan bezala, militarismoaren aurkako mugimenduak ere izan ziren Zumaian 1980ko hamarkadan, EMK alderdiaren inguruko kideek bultzatuta hasieran. Giro horren barruan sortu zen kontzientzia eragozle mugimendua ere. Garai hartan hamahiru hilabete-ko derrigorrezko soldadutza egin behar zuten gazte horiek.

Lehen intsumisoa

Hamarkada aurrera zihoala, lehen intsumisoak aurkeztu ziren. Derrigorrezko soldadutzari bakarrik ez, ordezeko gizarte zerbitzuak egiteari ere uko egiten zioten gazte horiek. Zumaian intsumiso egin zen lehena Ander Hormazuri Alkiza (Zumaia, 1966) izan zen. Ondoren etorriko ziren beste gazte batzuek ez bezala (Juan Luis Blanco, Ismael Manterola, Iñaki Etxaniz...), Hormazuri ez zuten



Juan Luis Blancoren epaiketa, eta epaitegi aurrean bildutako jendea, Blancori babesa emateko.

Gu ez goaz mugimenduak Zumaiako Gurutze Gorrian egindako protesta ekintza.



"EZ NENGOEN GIZARTE ZERBITZUAK EGITEAREN AURKA, BORONDATEZKOAK BAZIREN"

"SOLDADUTZATIK LIBRE GEUNDEN BATZUEK GEURE BURUARI ERRUA EGOTZI GENION"

epaitu, baina soldadutza egiteki libre egonda ere, militarismoaren aurkako borrokarekin jarraitu zuen.

“Intsumiso egin nintzenean hitz hori ez zen existitzen. Objektore egiteko aukera bazegoen, baina intsumisioak oraindik ez zuen existitzen”, dio Hormazurik hiru hamarkada geroago. “Garai hartan bi objektore zeuden Zumaian, Joseba Ossa eta Iñaki Uranga, eta, bestela, zerbitzu militarra ez egitea erabakitzen zutenek zoro papera egin behar izaten zituzten”, du gogoan.

Soldadutza egiteko garaia heldu zitzaionean aukera desberdinak izan zituela dio Hormazurik. “Gurutze Gorrian egiteko aukera izan nuen, eta sokorrista titulua ere atera nuen, badaezpada ere, zerbitzua itsasoan, marinan, egiteko”. Soldaduska Gurutze Gorrian egiteko aukeraz hitz eginda, orduko Zumaiako arduradun zen Juan Carballo abantaila batzuk proposatu zizkiola ere gogoratzen du. “Soldadutza Zumaian egiten banuen, hiru egunetik bi libre utziko zizkidala esan zidan. Hor zalantzak izan nituen, baina ez, azkenean ez joatea erabaki nuen”. Derrigorrezko soldadutzari bakarrik ez, ordezkotza zerbitzuei ere uko egin zien Hormazurik. “Ez nengoen gizarte zerbitzuak egitearen aurka, betiere borondatezkoa bazen, baina bai zerbitzu militarra ez egitearen ordezkotza bezala. Nik ez nuen laguntzeko arazorik, baina lagunduko nuen nahi nuelako, ez behartuta. Bestela, inposizioa zen”.

Herriko alderdi politiko eta mugimenduekin hitz egin zuela dio. “Garai hartan alderdiek ez zuten intsumisioa babesten. Hor desilusio handia izan nuen. EMKren bueltako Kakitzat mugimendukoek lagundu ninduten. Ez dakit nondik, dokumentu bat lortu zuten, soldadutzari bakarrik ez, gizarte zerbitzuei ere uko egiten nioela zioena. Gobernu Zibilean aurkeztu behar zen, eta lagun batekin joan nintzen, dokumentua eramatera”. Erabaki honetan, familiaren eta inguruko babes osoa izan zuen.

Mugimendu berria zen eta, Hormazuriren esanetan, Espainia mailan ez zegoen ezer antolatuta. “Bilerak egin ziren Espainia mailan. Aragoiko, Errioxako eta Euskal Herriko intsumisioak Orioko aterpetxean bildu ginen; asteburuko egonaldia bat egin genuen gai



Ander Hormazuri, Zumaiaiko lehen intsumisoa. JUAN LUIS ROMATET.



Iñaki Etxanizen epaiketa, eta haren aldeko protesta ekintza Donostiako epaitegi aurrean.

Intsumisioaren aldeko ekintza, Zumaian, Erribera kalean.

**"OSO GAZTE NINTZEN,
BAINA OSO GARBI
NUEN SOLDADU IZATEA
EZ ZETORRELA
NIREKIN"**

**"KARTZELAK BAINO,
SOLDADUTZA EMATEN
ZIDAN BELDURRA;
INFERNUA IZAN BEHAR
ZUEN HORREK"**



hori garatzen joateko". Anderrek gogoan duenez, orduko intsumisio guztiak ezingo zituzten kartzelan sartu, 36.000 pertsona inguru espetxeratu beharko zituztelako. Hori zela eta, data jakin batetik aurrerako intsumisioak amnistia jaso zutela dio. "Jaso nuen paperaren arabera, soldadutzatik libre nengoen, baina erreserban mantenduko nintzen 35 urte bete arte".

Gogoan duenez, Juan Luis Blanco eta Ismael Manterola izan ziren intsumisio egiten hurrengoak Zumaian. "Horiek bai, horiek epaitu zituzten. Gu intsumisio egin eta bizpahiru urtera izango zen. Libre geunden batzuek, geure buruari errua egotzi genion. Hala egin nuen Ismael Manterolaren epaiketan. Borrokaren beste parte bat izan zen". Ondoren etorri ziren Gu ez goaz taldea, intsumisioaren aldeko borroka indartsua, eta herriaren eta alderdien babesera ere.

Forondan bulego bat ere izan zutela du gogoan, "intsumisio egin nahi zuten gazteei aholkuak emateko, kasu bakoitza desberdina zen eta. Ostiralero biltzen ginen Juan Luis, Ismael eta hirurok. Baina, berehala hasi zen jendea libratzen, epaiketak bertan behera uzten, eta hor bulegoa ixteko erabakia hartu genuen".

Epaiketa eta kondena

Ander Hormazurik ez bezala, Iñaki Etxaniz Osak (Zumaia, 1973) epailearen aurretik pasatu behar izan zuen intsumisio izateagatik. 18-19 urte zituela erabaki zuen Etxanizek intsumisio egitea. "Oso gazte nintzen, baina oso garbi nuen soldadu izate hori ez zetorrela nirekin. Beldurra nion, giro oso 'matxitoa' zegoen eta nire sexualitate aldetik ere oso erasotua sentitzen nintzen. Oso garbi nuen ez nuela soldadutza egingo". Objektore egitea ere ez zen Etxanizen burutik pasatu. "Ez nuen objektore egiteko asmorik ere; horri, inposizio horri, bukaera eman behar zitzaion".

Intsumisio egiteko erabakia etxean ondo hartu zutela dio. "Gure ama politikoki oso aktiboa izan da; beti babestu gaitu eta bultzatu ere bai. Gure anaia Andoni ere talde berean zegoen; lehenbizi objektore egin zen eta gero intsumisio".



Iñaki Etxanizen epaiketa Baleike aldizkariko azalean agertu zen. MARIA MAYA MANTEROLA

Epaiketa eguna ia ez duela gogoratzen dio Etxanizek. “Aurretik ez nintzen hain adi egon, ez nuen burua gehiegi jan. Baina, halako batean, egun batean, epaiketaren zitazioa heldu zitzaidan, eta hor bai, oso-oso urduri jarri nintzen”. Ofizioko abokatua izan zuela dio. “22 urte nituen orduan, eta duro bat bera ez nuen. Egia esan, ez nuen epaiketa asko prestatu, baina gogoan dut epailearen aurrean ez zitzaizkidala hitzak ateratzen; dardarka nengoen. Ez dut oso garbi egun hori, oso urduri nengoen eta. Baina eraso baten moduan sentitu nuen, ez nuelako ezer egin. Nire etikaren aurka zegoen gauza bat egin nahi ez nuelako epaitu ninduten, kriminal bat izango banintz bezala”. Babesa ere jaso du gogoan Etxanizek. “Zumaian, adibidez, greba egin zuten Institutuan, eta autobusa ere jarri zuten epaiketa egunean, babesa emateko”.

Bi urte, lau hilabete eta egun bateko kondena jaso zuen Etxanizek. “Garai hartan zigor hori denei ezartzen zieten. Aurrekaririk ez nuen, eta, besteak beste, horregatik ez ninduten sartu kartzelan”. Hamar urteko inhabilitazioa ere ezarri zioten kargu publikorako. “Hamar urtez ezingo nuen lanik egin administrazio publikoan”.

Martuteneko espetxean bukatzeko beldur pixka bat zuela onartu du Etxanizek, “baina soldadutzak berak beldur gehiago ematen zidan. Mamu bat bezala zen, infernua izan behar zuen horrek”.

Bizitako une horiek gogoratuta, momentu txarrak eta onak aipatzen ditu Etxanizek. “Txarra, hortik pasatu beharra, eraso hori jasan beharra, erasotzailea zu izango bazina bezala. Ona, berriz, jasotzen duzun babesa, eta ikustea ez zaudela bakarrik; borrokan ari zaren momentuan oso garrantzitsua da hori”

Soldadutzaren amaiera

Derrigorrezko soldadutzak 2001. urte amaierara arte iraun zuen Espainian. Hormazuriren ustetan, “beste erremediorik ez zutelako” amaitu zen. Etxanizek, berriz, poz handia hartu zuen soldadutza bukatu zenean, “beste inork ez zuelako pasatu behar hortik. Ezin duzu pertsona bat bahituta eraman bi urtez, urte eta erdiz edo urtebetez. Gainera, ez zen kontuan hartzen pertsona nolakoa zen. Sexualitate kontuak garrantzitsuak ziren: transexuala izan zintezkeen, homosexuala, eta hori garai haietan. Infernu galanta izan behar zuen soldadutzak”. ■■■

PUBLIZITATEA



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINITZA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Trapaia
Taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izusterri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitortekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea -tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTSARIAK

Amaiako plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

Zumaian bertan eguzki energia sortzera goaz. **Izan aldaketaren parte, zatoz Egutera.**

Egin aurrematrikula:
labur.eus/egutera



egutera

ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

EGOTETIK EGITERA





Kulturarekin sareak ehuntzen

GEURETIK SORTUAK

TESTUA:

JUAN LUIS ROMATET

Antzerki saioak, irakurketa laburrak edota zinema emanaldiak ikusteko aukera izango da 2022. urtean Zumaian, *Geuretik sortuak* ekimenari esker. Udalbiltzak sortutako egitasmo honek euskaraz sortutako proiektuak –literatura, antzerkia eta zinemagintza diziplinetan– babestea eta plazaratzea du helburu. 2021an sortua, Euskal Herriko hogeitik gora udalerrik egin dute bat egitasmoarekin, eta horien artean da Zumaia. Proposamen honen bidez, euskara eta kontakizuna ardatz hartuta, Euskal Herriak kulturalki sarea ehuntzea da asmoa.

Proposamenean parte hartu duten sortzaileek egonaldiak egin dituzte 2021. urtean zehar proiektuak garatzeko Udalbiltzak berak aukeratutako herrietan, “herri bakoitzaren idiosinkrasiari lotuta”. Hori bermatu ahal izateko, kulturagileek berea ez den herrian egin dituzte egonaldiak, “hura ezagutu eta hasierako proposamena esleitutako tokira egokitzeko”. Hala, Fito Rodriguez idazle gasteiztarra Zumaian izan zen iaz. Udaberritik uda amaierara bitartean egin zuen egonaldia, eta horren emaitza Julene Azpeitia ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldian ikusteko aukera izan zen.



Otsailaren 11n eskainiko da 'Eresia' antzezlanaz Zumaian.

Zumaiako bi artistak ondu dituzte beraien proposamenak egitasmo honen barruan. Telmo Iruretak Arrigorriagan egin zuen egonaldia, eta *Sexberdinak* obra da horren emaitza. Mireia Gabilondok zuzenduta, Kepa Errastiren eta Iruretaren beraren gidoiarekin, Aitziber Garmendia izango du alboan taula gainean. Maite Aizpurua ere obra berri bat prestatzen aritu da Metrokoadroka Kolektiboarekin batera, Uhartan eta Atarrabian egindako egonaldietan. Bi obra

horiek Zumaian eskainiko dira ekainaren lehen hamabostaldian.

Geuretik sortuak egitasmoaren barruan egindako lanak otsailetik aurrera izango dira Zumaian. Hasteko, Oier Zuñigak *Eresia. Lurra arin bekizu, ama* obra taularatuko du otsailaren 11n. Martxoaren 23an, berriz, *Hamazazpigarrenean aidanez* egitasmoaren barruan prestatutako idazlanen bilduma aurkeztuko du Fito Rodriguezek Oxford aretoan. ■

MAHAI EGUTEGIA 2022



1€



UROLAKOKOMUNIKAZIOTALDEA KOOP. ELK.

HITZAko bulegoan eskuratu
AZPEITIA

Soreasu 1. Dinamoia • 943-81 38 41

ZARAUZZ

Araba kalea 27 • 943-87 00 17

AGENDA

ERAKUSKETAK

OTSAILAK 4-20:

SESMA

MARTXOAK 1-20:

EVA FRANCO

MARTXOAK 22-APIRILAK 3:

DARAHLI

Oxford aretoan

DEIALDIAK

OTSAILAREN 16AN ETA MARTXOAREN 2AN, 16AN, 30EAN.

Euskarako hitzaldiak.

OTSAILA

9, ASTEAZKENA

Zine forum: *Queridos camaradas.*
Zuz: Andrei Konchalovsky.
Aita Marin, 19:00etan.

10, OSTEGUNA

Kontzertua: *Spirit.*
Lidia Insausti, Noa Egiguren
eta Lide Hernando eta musikariak
gospel eta soul musikaz.
Aita Marin, 20:00etan.

11, OSTIRALA

Antzerkia: *Eresia,* Oier Zuñiga.
20:00etan.

18, OSTIRALA

Kontzertua: Hernaniko udal musika
eskolako Dakapo abesbatza
Komentuan. 18:30etan.

19, LARUNBATA

XXXVII. Herri lasterketa.
17:00etan.

20, IGANDEA

Antzerki musikala: *Kutsidazu bidea*
Ixabel musikala.
Aita Marin, 19:00etan.

23, ASTEAZKENA

Liburu aurkezpena: Julene
Azpeitiaren biografia eta lanak
Askatasun eguzkia baino beharrago.
Oxford aretoan, 19:00etan.

24, OSTEGUNA

Zine forum: *Nido de viboras.*
Zuz: Kim Yonghoon.
Aita Marin, 19:00etan.

26, LARUNBATA

Afizionatuen txirindulari lasterketa
10:00etan.

Kontzertua:

Modus Operandi. 19:30 plazan
(txarra egin ezkeru Zumaien).

27, IGANDEA

**Piraguismoko Gipuzkoako neguko
txapelketa.**
12:00etan.

28, ASTELEHENA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots:
Kuikui.
15:00 eta 17:30etan.

MARTXOA

3, OSTEGUNA

Umorea:

Luze edo motz.

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai
umoregileak.
19:00etan.

4, OSTIRALA

Antzerkia: *Trapu Zikinak,*
Lore-More.
Aita Marin, 20:00etan.

10, OSTEGUNA

Zine forum: *La vida era eso.*
Zuz: David Martín de los Santos.
Aita Marin, 19:00etan.

11, OSTIRALA

Antzerkia: *Adela eta Martirio.*
20:00etan.

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



IGOGAILUKO
ZARATAK



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTIUAK
BERRESKURATZEA




HARRAPATZE
EGOERAK

bertako
igogailuak | euskararen

www.bertako.eus



Iraganeko haritik datorkigu etorkizuna



Izurdeen aurreko bizitza

Egilea: Kirmen Uribe
Argitaratzailea: Susa
Argitaratze urtea: 2021
Orrialdeak: 320
Generoa: narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Euskal kondaira zahar baten arabera, izurdeak, garai batean, pertsonak izan ziren. Izurde bilakatu ziren lamien maitale izatearren. Behin urrats hori eginda, ez zegoen atzera egiterik. Euskal kondaira zahar horrekin hasten da Kirmen Uriberen laugarren nobela. Liburuko gai nagusia azaleratzeko darabil autoreak antzinako alegia hori. Izan ere, izurde bihurtutako gizakien eta lamien istorioaren muinean dago nobelaren mamia, izan ginenak garen horretan duen garrantzia, iraganak orainaldian eta aurrekoek gudan, alegia.

Rosika Schwimmer sufragista eta bakezalearen bizitzan ardatzuta nobela idazteko beka irabazi ondoren joango dira New Yorkera bizitzera Uri (Uribe), Nora (emaztea) eta seme-alabak (Ane eta Unai). Urik Schwimmerren bizitzako txatalak ikertzen dituen bitartean (nola hazi zen zaldi eta kontzertu artean, nola lotu zen emakumeen askapen mugimendura, nola antolatu zuen Gerra Handiari aurre egin nahi zion bake ontzia...),

hautzaroko oroitzapenak etorriko zaizkio: herri arrantzale bateko hautzaroa eta 80ko hamarkada gatazkatsua, besteak beste. Eta horiekin guztiekin batera familiak New Yorken bizi izandakoak.

Hiru ataletan osatuta dago obra, era kronologikoan eta bakoitza ahots eta kontatzeko modu banarekin. Lehenengo atalean, Rosikaren bizitzako pasarteak Uriren eguneroko gorabeherekin tartekatuko dira. Bigarren atala da, akaso, interesgarriena. Uriren emazte Norak hartuko du hitza atal horretan, eta aspaldi ikusi gabeko Maider lagunari idatzitako eskutitzak baliatuko ditu narrazioan aurrera egiteko. New Yorkeko egunerokoa dago atal horretan, COVID-19aren ondoriozko itxialdia, eta horrekin batera, Maider eta Noraren hautzaroko zein

**ATALEN ARTEKO
 HARIAK JOSTEN ETA
 GERUZAK EHUNTZEN
 TREBEA DELA
 ERAKUTSIKO DIGU**

gaztaroko, 90eko hamarkadako pasadizoak. Nobelako pasarte hunkigarrienak biltzen ditu bigarren atal horrek. Azkenik, hirugarren atala. Liburuari itxiera bi seme-alabek, Anek eta Unai, ematen diote jolas moduko elkarrizketen bidezko narrazioarekin, eta etorkizun itxaropentsu batera proiektatzen ditu nobelaren pertsonaiak.

Egitura aldetik egoki lotutako eleberria da. Beste behin ere Uribek atalen arteko hariak josten eta geruzak ehuntzen trebea dela erakutsiko digu. Geruza bakoitzari bere neurriko garrantzia emango dio eta horrek batasuna emango dio nobelari, eta atal bakoitzari behar duen autonomia. Autoreak ez ditu nolana hiko gaiak jorratzen: migrazioak, feminismoa, bakezaletasuna, adiskidetasuna, aurrekoek utzitako oinordetzaren kudeaketa, transmisioa, historiak norbanakoengan duen eragina... "Tamalez, gure erabakien emaitza gara. Hitz egin eta isildu genuenaren emaitza". ■■■

Ni ez naiz zumaiarra



ENEKO DORRONSORO SENOSIAIN

Lehenengo galioa alaba jaioren zenean galdu nuen. Oraindik uko egiten nion Bartzelonan erroldatzeari, horrek mediku kontuak Osakidetzan artatu beharra, hauteskundeetako burokraziak, autonomotako trapitxeoak eta beste zenbait buruhauste ekarri zizkidan arren; legez kanpoko ekintzaren bat edo beste ere egingo genuen akaso, baina nire zumaiartasunak merezi zuen hainbeste.

Azken unera arte mantendu nuen esperantza eta sinatu aurretik ere tematu nintzaion erregistroko idazkariari: - *Ziur ezin dudala alaba bi herritan erroldatu?* - *Ezetz, ba!* Eta hala, gure alaba bartzelonarra da paperetan, espainiarra izateaz gain (bigarren -tartasun hori zumaiarrok ere aspaldi asimilatu zenuten).

Hor hasi zen gainbehera. Ordura arte hain nekezak ez zitzaizkidanak konplikazio bilakatzen hasi ziren eta urteetan galoi guztiak dir-dir, egoskor mantendu nintzenak zalantza egin nuen: kotxearen aseguruia zela, lan kontratua, etxeko paperak... Akabo. Nire NAN karnetak ere Bartzelonakoa naizela dio orain. Eta udan ezin izaten dut kotxea gurasoen etxe aurrean aparkatu.

Non jaioren ez du norberak hautatzen, begi bistakoa da. Zirkunstantziek erabakitzen dute non biziko garen ere, eta atzera begira, nire iraganera baino urrunago, zuri beltzeko argazki eta udal artxibategiko dokumentuen babesean arnasa hartzen dut: *Lasai, motel, Jose Maria Zubiak ere gazterik egin zian Donostiarako bidea eta inork ez dik zalantzan jartzen Aita Mari zumaiarra zenik. Eta hark ere inoiz herrira bisita egin izan balu, ezezagun asko topatuko zizkian Erribera kalean!*

Nik oraindik turisten aitzakia erabiltzen dut, hori dela Erribera kalean, tabernetan, okindegian, Elorriagara bidean ezagutzen ez dudana jendetzaren arrazoia. Baina badakit distantzia eta denbora beren bidea egiten ari direla xorro-xorro, isilpean. Ohartzerako Zumaiara beraneatzera joaten

**GALOI GUZTIAK
DIR-DIR, URTEETAN
EGOSKOR MANTENDU
NINTZENAK ZALANTZA
EGIN NUEN**

diren neskatila katalanen aita izatera pasako naiz, eta hori gure garaiko eibartar beraneanteen seme-alaba zumaiarrek esango didate, gainera. Bizitzaren legea.

Amerikanuak filmak argi islatzen du bestela ere ezaguna den erbesteratuen errealitatea: etxea amets bizi dira, amesten duten hura jada existitzen ez den nostalgiaz. Joandako garai batean iltzatutako postal bat baino ez baita haien herrimina: Inpernupeko haitzetan itsasoak uzten zizkigun altxorrak, etxepeko lagunekin egindako txabolak, ikastolako urratuak, Gazte Batzordeko ametsak, plaieroak, melenak eta taberna zuloak.

Beste zumaiar batek (nahiz eta hark ere gaur egun ezingo zukeen kotxea bere gurasoen etxe atarian aparkatu) *Amandriaren altzoan* ipuin bilduma idatzi zuen adinean aurrera zihoala. Eta zer zerpentsatua ematen dit Julene Azpeitiak Zumaiatik kanpo hainbeste urte zeramatzala, liburu bati hain izen zumaiarra jarri izanak. Agian ez dago dena galduta! Eta nongoak garen ez dute oraindik paperek erabakitzen. ■■■

Nekea



JUAN LUIS ROMATET

Pandemia alu honek denboran ere eragina izan duelakoan nago. Edo, behintzat, uneak, momentuak, pasarteak, denbora lerroan kokatzeko orduan zailtasunak jarri dizkigu. Edozein konbertsaziotan ekitaldi bat, kontzertu bat, noiz izan zen eztabaidatzean, beti dago norbait esaten duena –askotan ni neu– “Ez, hori ez da horrela, pentsa tartean pandemia izan dugula”. Parentesi batean egongo bagina bezala dirudi. Kontua da parentesi hau ixterakoan, inoiz ixten bada, behintzat, ez garela itzuliko hasierako puntu hartara, 2020ko martxoaren erdialdera, alegia. Bestelako mundu batean jarraituko dugu. Ez dut esango nire bizitza askoz hobea zenik birusaren aurretik, baina pandemiak –barneratuta dugun hitz hau zientzia fikziozko film apokaliptikoetan bakarrik erabiliko nuen 2020ko martxoaren aurretik– goibeltasun geruza bat jarri digu gainean, eguzkiaren izpiak pasatzen uzten ez duen laino beltz perpetuo baten azpian izango bagina bezala.

Koronabirusa. 2020. urte haren aurretik ez nuen inoiz entzun edo irakurri hitz hori, eta nire ezjakintasunean lasai asko bizi nintzen; banituen beste arazo batzuk Wuhanetik etorritako birus ñimiño bati kasu egiten hasi gabe ere. Orain gure egunerokoan daude koronabirus, covid, txerto, antigeno, izurrite edota pandemia bezalako hitzak. Ezin egunkari bat zabaldu, ezin telebistako edo irratiko albistegi bat entzun ditxosozko hitz horiek entzun gabe. Eta bai, kazetaritzako gremioan egiten dut lan, eta gure ardura ere bada horien berri ematea. Baina nekatu egiten du, asko nekatzen du. Nire kasuan, apenas irakurtzen dudan egunkaririk, eta albistegiak ia ez ditut ikusi ere egiten. Lehen telebistan ikusten nituen debate politikoak jarraitzeari ere utzi diot. Egunerokotasunetik ihes egin nahi izaten dut, tabernako barrara hurreratuta batzuetan, disko, liburu eta pelikuletan murgilduta askotan.

Oraindik ere sufritzen ari garen garai beltz honek eragina izan du eta izango du gudan. Norbaitek pentsatuko balu gizarte bezala hobeak aterako garela laino beltza behingoz uxatzen dugunean, barkatu, baina oso oker dago; arratsaldeko zortzietako txaloak bukatu dira. Gizarte bezala okerragoa gara, marmartiagoa, mesfidantzaz bete; edozein teoria zoro, batekoa zein bestekoa, sinesteko gai garen gizartea sortu dugu. Auskalo nola, baina lehen friki batzuek sinesten zituzten konspirazio teoriak orain bolo-bolo dabilta gizartean edo, behintzat, sare sozialetan, mundu paralelo kirasdun horretan. Eta hemengo honek ez du ezer ulertzen: nola Lurra laua dela? Nola txertoarekin aberats jendeak eta korporazioek gu kontrolatzeko txip bat sartuko digutela? Baina, baina, baina...

Amesgaizto hau hasi zela bi urte beteko dira datorren hilean. Esnatuko al gara inoiz? Eta hala bada, nola? ■■■

**ORAINDIK ERE
SUFRITZEN ARI GAREN
GARAI BELTZ HONEK
ERAGINA IZAN DU ETA
IZANGO DU GUGAN**



INAUTERIAK

OTSAILAREN 14TIK 27RA

EROSKETAK HERRIAN EGITEAK, SARIA DU!!!

100€ ko **5** bono
zozketatuko dira










ONGI ETORRI
ALOKAIBU TURISTIKOAK

**Zure etxea alokatu nahi baduzu,
guk kudeatuko dugu**

Publizitatea, etxea prestatu, bezeroari arreta, eta garbitasun lanak egingo ditugu. Eta behar duzunean etxea eskura izango duzu.

Atera etekina etxeari

 **680 33 00 62**

 ongiotorrialokairuturistikoak@ni.eus

 **@ONGIETORRIALOKAIRUAK**



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



Casa BASUSTA

LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com